


Honako idazkia biko bera tramitarak  
..... Sailer  
Para el presente escrito al Negociado d  
..... para su trámite

Secretario  
Abelló

LASARTE-ORIA 2014 UZT: 04  
IDAZKARI OROKORRAK

## MOZIOA

### EGUNKARIA-KO AUZI EKONOMIKOAK



Donostiako Zigor Auzitegiak 2014ko ekainaren 4an itxi egin zuen Egunkaria-ko auzi ekonomikoa, ustezko delituak preskribituztat jota (diru laguntza publikoen iruzurra eta diru kontuen faltsutzea), baina Gipuzkoako Fiskaltzak ekainaren 11n apelazio helegitea aurkeztu zuen (ekainaren 17an jakin zen berria), auzia preskribituta ez dagoela iritzita. Kasua Gipuzkoako Lurralde Auzitegira pasatuko da orain eta defentsak helegitea inpugnatzeko aukera du; ondoren jakingo da epaiketa egingo den ala ez. 2003ko urriaren 16an egin zuen operazioa Guardia Zibilak, Juan del Olmo Auzitegiko Nazionaleko epaileak aginduta. 2010eko maiatzean Auzitegi Nazionalak Donostiako epaitegira igorri zuen auzia, Egunkaria-ren itxiera kasuko absoluzioaren ostean. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Fernando Furundarena, Ainhoa Albisu eta Begoña Zubelzu dira auzi ekonomikoan auzipetuta daudenak, Fernando Furundarena lasarte-oriako herritarra izanik.

Auzipetutako 8 kideek adierazi bezala kolpe latza izan da hau beraiantzat eta euskal gizartearentzat oro har. Hamaika urte zigor handia da hainbeste urtetan mehatxu horrekin bizitzeko, eta fiskalaren jarrera honek berriro ere epaiketa baten mehatxupean bizitzera behartzen ditu 8 auzipetuak, tartean Fernando Furundarena herritarra ere.

Azken aldian, Eusko Jaurlaritzak birritan esan du ez dela iruzurrik izan dirulaguntzen alorrean, bata Patxi Lopezen gobernualdian, 2012ko uztailean, eta bestea urte bete beranduago, 2013ko uztailean, Iñigo Urkulluren gobernualdian. Ez hornitzaileek, ez bezeroek, ez Ogasunak eta ez Eusko Jaurlaritzak ez dute kalte ordainik eskatzen, are gehiago, akusatuek ez dutela deliturik egin baieztatzen eta frogatzen dute, ustez kaltetuak liratekeenek beraiek eta hala ere 8 pertsona hauek akusatuen aulkian daude.

Lasarte-Oriako udalak honakoa adierazi nahi du:

- 1.- Udaletxe honek babes eta laguntza osoa adierazi nahi die kasu honetan auzipetuta dauden 8 kideei, eta bereziki Lasarte-Oriatarra den Fernando Furundarenari.
- 2.- Udaletxe honek gogor salatzen du Gipuzkoako Fiskaltzaren apelazio helegitea aurkezteko erabakia eta irmoki eskatzen du Egunkariako auzi ekonomikoa, hamaika urte luzeren ondoren behingoz ixtea.

Lasarte-Orian, 2014ko uztailaren 8an

Lasarte-Oriako Bildu Udal taldea

